



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2015eko abenduaren 16ean, 13:30etan, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. 2016KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

Espedientea mahai gainean utzi da, eskola berria eraikitzeko lursaila lortzea, tramitatzea eta urbanizatzearen kostuak jakin arte.

2. DIRU-LAGUNTZA ESKAERAK.

Aho batez erabaki da diru-laguntza hauek ematea:

- Asteburu Kulturala antolatzen duen batzordeari, 220 euro.
- Olentzeroren etorrera antolatzen duen batzordeari, 80 euro.

Eta bertzerik ezean, 14:50ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.